



Gehigarria

Kantu Zaharren Eguna

**Uztailaren 15a
Inharrean Kantu
bazkarirako egin
sartze hitzaldia**

*Egunon eta ongi etorri
guzieri.*

*Aurten hirugarren aldi-
kotz elgarrekin kantuz har-
tzeko parada paregabea.
Gure nahia: zuek egun bat
oroitzekoa pasatzea da, kan-
tatzeak ematen duen gogoia,
gozoa, atsegina eta plaze-
rarekin.*

*Aurten zueri esker esku-
ratzen ahalko duzue atera-
tuak izan diren liburuxka
eta bideo K7. Gaur bezala
ez bazinezte etorri, kantu
ainitz berdin galduko ziren.
Holakorik gerta ez dadin
denen beharra izaten da.
Agian ondoko belaunaldiak
ere kantatzen ahalko due-
lakoan, hori ere gure esku
baita parte batean.*

*Galdatu daukute libu-
ruxkaren azalean zergatik
erortzen ari den Senpereko
jauregiaren fotoa eman izan
den. Kantu zaharrak biltzea
eta zabaltzea merezi zuen
bezala, Senpereko jauregiak
ez ote du merezi salbatzea,
gure ontasun historikoa bai-
ta?*

*Ohore eta esker onak gu-
zieri.*

M.M.




III. Kantu zaharren Eguna

Xistulariak eskutaturik
arras omore onean
Zintzurra ere goxatu dugu
bakotxak bere heinean
Bi mila urte iragan dira
aurten girade batean
Senpere huntan bilduak gira
Ibarrungo Inharrean.

Gaur uztailaren hamabortzean
goxotasunez gu hemen
Orain artean gertatu zauku
jada bietan bederen
Probintzietan jakin bezate
oraindik lehenbailehen
Gur' arbasoen aire zaharrak
kantatzen dira Senperen.

Bozkarioa heda dezagun
hemen guziek elgarri
Egun goxo hau izan dadien
dena kantu eta irri
Orai artean egin duzue
guzier ongi etorri
Bihotz bihotzez desi-
ratzen dut
egin zazue bazkari.



**Bazkal aitzinetik
MINABERRIK
kantatuak**

Aurtengo uztailaren (hamabortzgarrena • bis)
Ibarrun Inarrean izatu ginena
(Goxoko entzun nahiz • bis) (kantari andana • bis)
(Denek ginuelarik omore bat ona • bis).

Argazkian harturik, (zintzurra bustirik • bis)
Mahain eder bat zagon, gauz onez beterik.
(Oi! zer alegantzian • bis) (otruntza harturik • bis)
(Oren goxoek zuten ez akabatzerik • bis).

Olandegiko Fifin, (Gabi Fagoaga • bis)
(Brave, Bessonart, Borda • bis) (Bereau, Elhorga • bis)
(Apextei eta Xixtu • bis) (Laxkano, Tapia • bis)
(Hoientzat eta bertzentzat, dugun kanta: BIBA! • bis).

Hirugarren urtean: (kantuak eguna • bis)
Kar bat haundiarekin egin izan dena.
(Senpereko jendea • bis) (kantuz dagoena • bis)
Xahar eta gazteak, (goazen aintzina • bis).

**Airea:
Ziburutik Sararat**

**Jean Pierre
Soudre
«IXTILARTEKOA»**



Jendea biltzeak beti zer bait dakar: aurtengo Illgarren kantu bazkarian agertu dira kanta zahar batzu eta bertze batzu osatu.

Maria Gaxintarekin

1

Behin batian, erran ninduen, aldamenian jarri-ta:
«biek ezkondu behar ginela. bertze guziak utzi-ta».
Horra Maria, horra Maria, horra Maria Gaxinta,
Mundu guzia harritutzen da, gure berriak jakin-ta!

2

Bertze guziak oherat joan-ta, gelditu ginen bakarrik,
Neure denboran nik ez dut edan, hau bezalako likorrik:
Gosturik ere ez zuen eta, batere ez zuen indarrik,
Ez balitz hura bainon hoberik, nihun ez laike moxkorrik.

3

Xokolatier xar, tzar batian, berotu zautan kabia
Hura, han edan gabetarikan, ez zuela nahi juaitia:
Xokolatier barne guzia, armiarmo sarez betia.
Jaunaren seme bataiatuak, ez zuen posible edatia.

Amari kantatzen aditu eta gogoz ikasiak bertze hauek biak.

1

Aitak eman daut dotia, dotia, neuria:
Urdeño bat, bere umeeekin,
Oilo koloka, bere xitoekin,
Tipula korda heiekin, tipula korda heiekin.

2

Otsoak jan daut urdia, urdia, neuria,
Axerriak oilo koloka,
garratoinek tipula korda
Adios neure dotia, adios neure dotia.

Jan Pierre SOUDRE
«IXTILARTE»



HOTEL - RESTAURANT
★★
DE LA
NIVELLE

Tel: 05 59 54 10 27
Fax: 05 59 54 19 82
SENPERE

Mixel Larralderen hilketa edo Senperen gertatua

Kantu berri kantatzen orai naiz habian
Hasi nahia bainintzen ganden aspaldian
Orai arte egon naiz begira lorian
Gastaginak hartuko zuztela hagian.

Zertaz dudan solasa egizue kasu
Gauzak nahi baititut xuxen esplikatu
Artzain bat bere bordan baitute garbitu
Etsaiaren indarra hor da baliatu.

Gaur hartan auzoan zen gaztain erre jaten
Trixtiak holakorik ez zuen pentsatzen
Bere ustez deskantsuan artalderat joan zen
Kriminelak etxean armaturik zauden.

Artaldea bildurik bera etorria
Egina zuelarik bere afaria
Sukaldean lo zagon kadiran jarria
Bainan hurbil bazagon norbeit atzarria.

Zango punttetan zaizkon urbildu bipilik
Aizkora eskuetan ixil gibeletik
Iru kolpe segidan burua arraildurik
Han berian utzi dute bizia kendurik.

Hiltzia ez zen aski nahi zuten erre
Lastoz eta petrolaz entseiatu dire
Ez baitzuten utzi nahi trazarikan ere
Afera ongi zuten baliatu balire.

Mixel zuen izena deitura Larralde
Bakarrik bizi zena lagunikan gabe
Jan edan onik gabe zabilan debalde
Gauaz eta egunaz beti larrez larre.

Senperen gertatzeko zer krima tristia
Sortuz geroz guziek zor dugu hiltzia
Alere ez da haizu eskua ibiltzia
Harrek ekartzen baitu denentzat kaltia.

Justizia izan da jina Baionatik
Jaun auzapeza eta jandarmak herritik
Gibelerat itzuli bihotza tristerik
Ez baitute atxeman nihor hiltzailerik.

Nor nahi izan dadin horren egilea
Galdu du sekulakotz trunkilitatea
Galdurike jandarmek beraren bidea
Begira egonen da hoi juje haundia.

Xalbador Goietzek kantatuak
Laurent Astigarraga-k emanak 10 bertsoak osorik.